

LAUAXETA SARIA

Egunon Jose Luis Bilbao Ahaldun Nagusi jauna, Josune Ariztondo Kultura Diputadu anderea.

Egunon, eta mila esker, gainontzeko Sailburu, Aldun, herri-agintari, Bizkaia Irratiko lagun eta euskerazaleoi geugaz ospatzera etorteagaitik.

Hirugarren saria aurton. Hartzera baino ohituago egon gara emotera baina zintzoa izanda hau hobea da, laster hartzen jako gustoa. Eskerrik asko Bizkaiko Foru Aldundiari gugan konfiantzea izateagaitik eta gaurkolako egun baten holango opari ederra emoteagaitik.

Lehenngo batek, sariaren barri hartu ebanean, aurrean parau eta hatzamarra altxauta esan eustan: Zeozer egingo zenduen! . Zorionak emoteko modu aproposa pentsau neban.

Zeozer egingo zenduen! Ba bai, hortxe dago gakoa, aditzean. Egin egin dogula eta egiten dihardugula. Aurrekoek ez deuskue behar egiten baino erakutsi ta. Gatxagoa da, izenordearen, ZEOZER horren atzean zer dagoen azaltzea, eta horixe egokitu jat gaur. Zeozer, ba bai egingo genduan hainbat urtetan nonbait. Aurreko mendean hasi ziran irratigintzan Herri Irratian eta oraindino jarraitu egiten dogu. Izan be,

Izan direlako gara. Zilegi begit, beraz jatorrira joatea, sorreretara, Bizkaia Irratiaren arimara. Gaur egun, sarri entzuten da EGILEA berbea. Egileen sukaldaritzea, egileen ardaoa, egileen soinekoak, egileen zinea, egileen ... egitadak. Ondo dago baina ez da nahiko, horreen kotizazinoa be aldatuz doalako denboraren porozuz. *Eragileek* gehiago irauten dabe, ingurukoak eta ondorengoak mugiduazoten dabezalako. Adoretuak, aurrerakoiak, erronken aurrean kikiltzen ez diranak eta abenturazaleak dira. Irudimenari, sormenari ateak zabaltzen deutesiez. Holakoxeak ziran gure atzekoak eta espiritu horri esker jarraitzen dogu gaur egunean be. Baina guztiaren ganetik badakizue zer ziran? Konprometiduak. Euskereagazko konpromisoak eralgiten ebazan eta holan hasi ziran euskerazko lehenengo emisinoakaz. Berba baten, militanteak ziran. Hori bai, esanak izana dakarrenez, izan zinien eta zarienoi, irratia sorburuetan ibilitakoei eskeini gura deutesuet lehenengo eta behin Lauaxeta saria. Danen artean, bat aitaturko dot, berari ez jakoz honako protagonismoak gusetan baina gaur onartuko deustalakoan, hainbat urtez gure lemazain izan dan Juan Mari Iraolagoitiari egingo deustat lehenengo aipamena. Eskerrik asko eragile izateagaitik.

Estepan Urkiaga. Esanahi handia dauka niretzat Lauaxetak. 12 urtegez, eskolako idazlan bat saritzeko *Bide Barriak* liburua oparitu eustan euskerazko maisuak, Jose Felix Zamakonak. Euskal letretan murgiltzeko modu gogorra zala neritxon eta grafia ulergaitz hatan galduko nintzala baina pozarren hartu neban liburua. Kazetaritza ikasten hasi eta han jakin neban Lauaxetak Euzkadi egunkarian kazetari lanak be egin ebazala. Eta orain sari hau. Ez dot patuan askorik sinisten baina Lauaxetarengan bai. Saria jasoko gendula jakitean umetako liburua, *Bide Barriak*, apaletik atara eta zeozelango seinaleen bila hasi nintzan. Jakingarri asko daukaz euki be, Aita Santi Onaindiaren hitzaurretik hasita, baina amaieran egileak dakarren oharrak deitu deust atentzinoa: "Euskeraz idazten dot, Aberriaren izkuntza dalako. Soluan atxurretan aberrija goralduko nebala, uste ba'neu, laster itxiko neuke lan au". Guk be geure beharretik, dakigunetik emoten deustagu arnasea hizkuntzeari baina joan-eterriko ibilbidea da, berau dalako eguneroko geure hauspoa be. Komunikazioaren munduan be bide barriak urratzen egin doguz azken

urteak. Konpetentzia ugaritu egin da, teknologia barriei esker abaguneak sortu dira bai, baina egokitzeak be egin behar izan doguz beste batzuren antzera. Erronka barriak datoz, euskereak erabileran irabazi behar dau eta horretan, komunikabideok zeresana eta zeregina daukagu. Gure geroa euskerearenagaz buztartuta joango da eta tinko ekin beharko deusagu. Trena galdu barik, olaturik onenak hartuta eta erremuei batera eraginez.

Bizkaia Irratiaren ontzian arraunkadak emoten zabilzen behargin eta kolaboratzaile guztioi eskeini gura deusuet beste alde batetik saria. Itsaso baltzez zein zuriz lanean jarduteagaitik, eskerrik asko.

Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak. Mikel Laboa gogoan, hain sakabanatuta gagozan herri honetan, batzearen, alkartzearen alde, beti modu baikorrean aurrera egin dabenak aintzat hartu gurako neukez. Asko dira, baina danen artean bati eskeini gurako neuskio sariaren beste zati bat. Gaur be geure artean dagoen Karmelo Etxenagusiari. Joan jaku baina berak inoan moduan, gu garean artean behintzat euskereak bizirik iraungo dau.

2008- 12- 03